
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



JARDUEREN MEMORIA

2024

AURKIBIDEA

AURKEZPENA

1. BARNE-ANTOLAKETA ETA OSAERA
2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA
3. KONTSULTA-JARDUERA
4. ERAKUNDEAREN JARDUERA
5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA KONTSEILUAREN FORMAKUNTZA-PLANA
6. LAN-HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ
7. PRECO, GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURAK
8. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA-ORPRICCE
9. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK
10. AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

AURKEZPENA

Aurkeztzen den memoriak zehatz-mehatz jasotzen du Lan Harremanen Kontseiluan 2024an egindako lana. Bertan jasotako jarduerak lan-harremanei laguntzeko dugun konpromisoa islatzen du, aintzat hartuta betiere gure lana gidatzen duten helburu instituzionalak.

Urtea kalifikatu beharko bagenu, 2024a «egonkorra» izan dela ondorioztatuko genuke, anomaliarik gabea, eta horri esker Lan Harremanen Kontseiluaren jardueran ez da inolako estresik egon, eta, beraz, berrikuntza handirik ere ez.

Memoria honetan nabarmentzen diren arloen artean, kontsulta-jarduera eta erakundearen jarduera sartzen dira, ingurune soziolaboralean erreferentziazko beste erakunde batzuekin loturak izateko eta sendotzeko aukera ematen dutenak.

Aipatzekoa da, halaber, LHKk lan-harremanei emandako babesa, negoziazio kolektiboaren eta gatazka kolektiboak konpontzearen alderdiari dagokionez. Ez baitira alferrik egin 2024an guztira 1.382 bilera gure hiru egoitzetan. Negoziazio-prozesuen faseetako laguntza tekniko-administra-

tiboa da lan-harremanei laguntzeko gure filsofiaren funtsezko zatia, baina horrekin batera, aplikatzeko hitzarmen kolektiboari buruzko kontsulta-zerbitzua ere eskaini dugu, arau-esparruak argitzeko funtsezkoa baita.

Izan ere, azterlanak eta txostenak egiteari esker, negoziazio kolektibotik datozen datuak lortu eta aztertu ahal izan dira, eta negoziazio kolektiboaren aurrerapen globalak baloratu ahal izateko eza gutza jarri dugu eskura.

Ez nuke aurkezpen labur hau amaitu nahi aurreko ekitaldian ezarri genuen euskararen erabilera normalizatzeko plana aipatu gabe, erakundearen eguneroko jardunean euskara benetan sartzeari sustatzen duten neurri berriak sartu baikenituen, elebitasuna bultzatzeko garatzen ari garen estrategiaren ildotik.

Bide batez, gure egoitzetara bertaratzen diren pertsona eta erakunde guztien lana oso aintzat hartzen dut, negoziazio kolektiboaren praktika errazten duten eragile gisa funtsezko zeregina betetzen baitute, negoziazioan oinarritutako lan-harremanen sistema finkatzeko funtsezko lana eginez.

Azkenerako utzi ditut hurbilen ditudanentzako esker hitzak. Lan Harremanen Kontseiluko langile guztiei eskerrak eman nahi dizkiet beren profesio-naltasunagatik eta dedikazioagatik. Horiek guztiak gabe, ezin izango ginatekeen iritsi garen tokiraino iritsi: zorionak zuen lanagatik.

Emilia M. Málaga Pérez
Presidentea

1. BARNE-ANTOLAKETA ETA OSAERA

Lan Harremanen Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoaren organo bat da, eta irailaren 30eko 9/1981 Legearen bitartez sortu zen; nolahi ere, Lan Harremanen Kontseiluaren egungo erregulazioa ekainaren 23ko 4/2012 Legean jasota dago. Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren gai soziolaboraletarako kontsulta erakundea da, eta, hori ez ezik, sindikatuen eta enpresaburu konfederazioen arteko topaketa eta elkarrizketarako organo iraunkorra ere bada (ikus horri buruzko informazio gehiago Kontseiluaren webgunearen **EGITURA** atalean).

Kontseilua bitariko erakunde parekidea da, sindikatu-erakunde eta konfederazioen ordezkari gisa diharduten zazpi kidez osatua, eta enpresa-konfederazioen ordezkari gisa diharduten beste zazpi kidez. Kontseiluaren azken berritze osoa 2023ko abenduaren 1ean amaitu zen. Egun horretan argitaratu eta ondorioak izan zituen Lan Harremanen Kontseiluko kideak kargutik kendu eta izendatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 14ko 32/2023 Dekretuak.

2024an, Lan Harremanen Kontseiluko kideen ezo-hiko berritze partzialerako prozedura hasi zen, eta Lehendakariaren ekainaren 19ko 17/2024 Dekretuak ondorioak izan zituenean amaitu zen. Horren ondorioz, gaur egun Euskal Enpresarien Konfederazioak (CONFEBASK) izendatutako zazpi kide efe-

ktibok eta CCOO, LAB eta UGT sindikatuek izendatutako zazpi kide efektibok osatzen dute LHK (ikus horri buruzko informazio gehiago Kontseiluaren webgunearen **EGITURA** atalean). Kontseiluko presidentea eta idazkari nagusia ere Kontseiluko kide dira, baina ez dute botoa emateko eskubiderik.

LAN HARREMANEN KONTSEILUKO LANGILEAK

2024. urtean, Lan Harremanen Kontseiluak honako langile publiko hauek izan zituen: azterlan sozioekonomikoen arduradun bat, lan-harremane-tako bi teknikari, administrazio-arloko buru bat, hizkuntza-normalkuntzako teknikari bat, negozio-zio kolektiboaren arloko teknikari bat, arloko sei administrari eta laguntzaile orokor bat. Gainera, behin-behineko langile gisa, Precoren prozedurak kudeatzeko eta negoziozko kolektiboari laguntzeko hiru lurralde-arduradun Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA

Lan Harremanen Kontseiluaren ohiko funtzionamendua Osoko Bilkuraren eta haren baitako lan-batzordeen bitartez bideratzen da. Bada, 2024an organo horien funtzionamendua honakoa izan da:

KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA: 2024an, Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkurak lau bilera egin zituen, eta, horietan, behar den bezala funtzionatzeko beharrezko erabakiak hartu ziren:

Ohikoa: martxoaren 25ean.

- LHKren 2023ko memoria onartzea.
- 2023ko ekitaldiko behin-behineko likidazioa onartzea.
- 2024rako Aurrekontuaren aldaketa onartzea.

Ezohikoa: apirilaren 30ean.

- 2023ko ekitaldiko urteko kontuak onartzea.
- Aurrekontua betetzeari buruzko informazioa 2024ko martxoaren 31ko datan.
- Lan Harremanen Kontseiluko kideen ezohiko berritze partzialerako prozedurari buruzko informazioa.

Ohikoa: ekainaren 24an.

- 2023ko txosten soziolaborala onartzea.

Ohikoa: abenduaren 2an.

- 2024rako Aurrekontua onartzea.
- Aurrekontua betetzeari buruzko informazioa 2024ko irailaren 30eko datan.

PRESTAKUNTZA BATZORDEA: Osoko Bilkuraren ohiko bile-retan aztertu beharreko gaiak prestatu eta gai-zerrenda onartzeaz arduratzen da. Eta 2024an hiritan bildu zen: martxoaren 13an, ekainaren 13an eta azaroaren 20an.

TXOSTENEN BATZORDEA: Txostenen Batzordeak Osoko Bilkuraren batzorde eskuordetu gisa jarduten du Kontseiluaren kontsulta-eginkizuna garatzean, otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3.a), b) eta c) artikuluan ezarritako baldintzetan. Bada, 2024an, Batzorde hau lau aldiz bildu zen Memoria honen **KONTSULTA-JARDUERA** atalean jasota dauden txosten-eskaerak aztertzeko.

3. KONTSULTA-JARDUERA

Lan Harremanen Kontseiluak duen kontsulta egin-kizuna garatzeko organo delegatua Txostenen Batzordea da, hala ezartzen baita Lan Harremanen Kontseiluaren funtzionamenduaren Araudian, zeina Osoko Bilkuraren 2014ko urtarrilaren 7ko Akordioaren bidez onartu baitzen.

Batzordeko kide gehienak iritzi berekoak direnean, Kontseiluak irizpen bat ematen du. Bestela, iritzi desberdinak daudenean eta adostasunik lortu ezin denean, Batzordeko kideen iritzi desberdinak zehazten dituen txosten bat egiten da.

2024an, Txostenen Batzordeak ondoren zerrendatzen diren Eusko Jaurlaritzaren txosten-eskaeren berri eman du:

—Euskal Autonomia Erkidegoko 2025 urterako Laneko Jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen duen Dekretu-proiektua.

—Eusko Jaurlaritzako Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburuaren Agindu-proiektua, zeinak arauak ematen dituen 2024ko apirilaren 21ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten.

—Eusko Jaurlaritzako Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuaren Agindu-proiektua, zeinak arauak ematen dituen 2024ko ekainaren 9ko Europako Parlamenturako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten.

—Bizkaiko Etxez Etxeko Laguntzaren sektoreko hitzarmen kolektiboa Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko edo familia-etxeko enpleguko langileen sektorerara zabaltzeko eskaera.

Gainera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren agindu-proiektua ere bidali zen, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratu eta onartzen duena. Hala ere, Txostenen Batzordeko kideek erabaki zuten aipatutako Lege Aurreproiektuan jasotako erregulazioak Lan Harremanen Kontseilu honen eskumen-eremua gainditzeko zuela.

Emandako txosten eta irizpen guztien testu osoa LHKren webgunean kontsulta daiteke, **KONTSULTA-JARDUERA** atalean.

4. ERAKUNDEAREN JARDUERA

Hauek dira Lan Harremanen Kontseiluaren 2024ko jarduera instituzionalaren baitako ekitaldi nabarmenenak:

Martxoaren 15ean presidenteak moderatzaile gisa parte hartu zuen Bilbon egindako konferentzia honetan: «*AI in workplace: what next for the protection of European workers?*».

Maiatzaren 8an, presidentea CEBEKen Batzar Nagusian izan zen, Bilbon.

Maiatzaren 24an, presidentea ASLEren Batzar Nagusian izan zen, Bilbon.

Maiatzaren 30ean, presidentea Adegiren Enpresaren Egunean izan zen, Donostian.

Ekainaren 7an, presidentea SEAren Batzar Nagusian izan zen, Gasteizen.

Ekainaren 14an, presidenteak, gonbidatu gisa, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren urteroko bazkarian parte hartu zuen.

Ekainaren 27an, presidentea eta idazkari nagusia Madrilen izan ziren SIMA FSP Fundazioaren urteroko XXII. Jardunaldian. Gaia: «*Mediación: El ikigai*».

Uztailaren 16an, LHK-ko presidenteak «*2023ko EAEko egoera ekonomikoari eta lan-harremanei buruzko txostena*» aurkeztu zuten Bilboko egotzan emandako prentsurrekoan.

Irailaren 18an, Sevillan jardunaldi instituzional bat egin zen, Andaluziako Juntako «Consejería de Empleo, Empresa y Trabajo Autónomo» izenekoak antolatua, *SERCLAren 25 urteko funtzionamen-*

dua ospatzeko. Ekitaldian Lan harremanen Kontseiluko presidentea eta idazkari nagusia izan ziren.

Abenduaren 10ean, presidenteak moderatzaile gisa parte hartu zuen «*Soldata-arrakalari aurre egiteko negozioazio kolektiboa*» delako mahaian, Gasteizen egindako Soldata Arrakalari buruzko Nazioarteko III. Biltzarraren barruan.

5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA KONTSEILUAREN FORMAKUNTZA-PLANA

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

Duela bost urte, 2019ko ekitaldiaren amaieran, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa onartu zen, Elhuyar enpresarekin lankidetzan. Plan hori Eusko Jaurlaritzaren 2018-2022 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plan Estrategikoaren barruan sartzen zen. Elhuyar Aholkularitzarekin lankidetzan, aldi horretarako Kontseiluaren Plan Estrategikoa garatzea izan zen helburua. Bada, 2024an, Lan Harremanen Kontseiluaren 2024-2027 aldirako Euskararen Erabilerarako Plan Estrategiko berria egin da, VII. Plan Estrategikoaren esparruan eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritako jarraibideak kontuan hartuta. 2025. urterako Plan horren lehen Kudeaketa Plana garatu nahi da.

Bestalde, Lan Harremanen Kontseiluko Euskara Batzordeak 2024an zortzi bilera egin ditu. Honako hauek daude organo horretan: Elhuyar enpresako ordezkaria (koordinatzen du), idazkari nagusia, administrazio-arloko burua, lan-harremanetako teknikari bat, funtzionario administratibo bat eta LHKko hizkuntza-normalkuntzako teknikaria.

2024KO EKITALDIKO NEURRI NAGUSIAK

Neurketak

- Otsailean eta azaroan *euskararen ahozko erabilera neurtu da aurrez aurreko eta telefono bidezko arretan*. Neurketa hauetatik ateratako ondorioa da euskararen erabilera zabalduena Gipuzkoako egoitzan erregistratu dela.
- Urte osoan zehar, *aplikatu beharreko hitzarmenari buruzko kontsultak* neurtu dira: bai eskaerak, bai erantzunak. Eskabide gehienak gaztelaniaz datoz, baina gure erantzuna ele bietan jakinarazten da. Euskaraz aurkeztutako kontsultei (hiru bakarrik 2024. urte osoan) euskara hutsean erantzun zaie.
- Urte osoan zehar, *Kontseiluko langileek (zuzendaritza barne) lankideei bidalitako mezu idatzi orokorren* neurketa egin da. Mezu horietako gehienak (%75) euskara hutsean bidali dira.

Jendaurreko ekitaldiak

- Euskara presente egon da uztailaren 16an Bilboko egoitzan egindako prentsaurrekoan. Ekitaldi horretan, presidentek «2023ko EAEko egoera ekonomikoari eta lan-harremanei buruzko txostena» aurkeztu zuen.

Formakuntza-plana

—Maiatzaren 7tik 30era 2. HE birziklatze-ikastaroa (formakuntza moduan) eman da Bizkaiko egoitzan, hizkuntza-eskakizun hori egiaztatuta duten langileentzat. Orotara, sei ikasle izan dira: LHKko lau funtzionario, eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko (gaztelaniaz CES) beste bi.

BAGABILTZA buletina

—BAGABILTZA izeneko buletinaren hiru zenbaki argitaratu dira 2024an: lehenengoa otsailean, bigarrena maiatzean eta hirugarrena urrian.

Euskara Saiok

—Lan Harremanen Kontseiluan «*Euskara Saiok*» izeneko ekitaldi bereziak antolatzea izan da 2024an ere Kudeaketa Planaren helburuetako bat, eta guztira hiru egin dira, hirurak ere Bilboko egoitzan: apirilean, irailean eta abenduan.

Saio horiek sortze-hizkuntzan trebatzeko, otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua aurkezteko eta 2025erako kudeaketa-plana egiteko baliatu dira, besteak beste.

Argazki Lehiaketa

—Lan Harremanen Kontseiluaren III. Argazki Lehiaketa antolatu da 2024an. Kontseiluko langileek udako hiruna argazki aurkez zitzaketen gehienez. Guztira, 38 argazki aurkeztu ziren. Irailean ekitaldi berezia egin da argazki irabazlea iragartzeko, parte hartu nahi izan zuten langile guztien bozkak jaso ostean. Aurreko urtean bezala, bi irabazle egon ziren.

Mintza Kafeak

—Ekimen berritzailea da, eta kafe bat hartu eta euskaraz modu informalean hitz egiteko elkartzean datza. Urtean zehar bost hitzordu antolatu dira.

LHKREN FORMAKUNTZA-PLANA

2020 urtean formakuntza-beharren diagnostikoa egin zen eta «*LHK-ko langileentzako formakuntza-plana*» diseinatu zen. Formakuntzarako plan hori Lan Harremanen Kontseiluko langile guztiek koordinatutako hausnarketaren emaitza izan da, eta garatzen dituzten gaitasunen arabera hartzaile espezifikoa dituzten eremuak biltzen ditu.

6. LAN-HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ

BATZORDE PARITARIOEI ETA HITZARMEN KOLEKTIBOAK NEGOZIATZEN DITUZTEN BATZORDEEI EMANDAKO ZERBITZUAK

2009an, plan bat onartu zen, Lan Harremanen Kontseilua lan-harremanen zerbitzu integral gisa finkatzeko asmoz, negoziazio kolektiboa ahalik eta modu gehienetan egin zedin (negoziazio-batzordeak eta paritarioak). LHKren oinarritzko egin-kizunetako bat da, bere lege erregulatzaillearen arabera, eta hori betetzea funtsezko faktorea da negoziazioan oinarritutako lan-harremanen sistema finkatzeko, Zuzenbideko estatu demokratiko batekin bat datorren aldetik.

Data horretatik aurrera, aurrera egin da prozesu horretan, eta lankidetzak eskaini zaie sektoreko hitzarmen kolektiboak negoziatzen dituzten batzordeei eta horietako bakoitzak sortu behar duen batzorde paritarioari. Lankidetzak horrek hainbat laguntza-maila biltzen ditu: batzordea bera helbi-deratzea, lokalak bileretarako erabiltzea, batzorde paritarioei zuzentzen zaizkien eskaerak jaso eta tramitatzea, eta Kontseiluko teknikariek edo, batzuetan, Precoko zerrendetako profesionalek parte hartzea. Azken hauek moderatzaile, aholkulari eta akta-idazkari gisa jardungo dute, hitzarmenen negoziazioa sustatzen lagunduko dute, batzordeak eratzekeo prozesuan, hitzarmen kolektiboak izenpetzen, paritarioen akordioak gauzatzen... eta aurkezpen telematikoa egingo dute Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan (Regcon).

Lan-harremanen sistemak modu eraginkorrean funtziona dezan, pentsatu behar da negoziazio kolektiboa gertaera ez-zirkunstantziala dela, denboran zehar luzatzen dena, intentsitate desberdinarekin, hitzarmena negoziatzeko edo abian jartzeko unearen arabera. Horregatik, negoziazio-batzordeei eta batzorde paritarioei laguntzeko programa LHKren funtsezko helburu bihurtu da.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren zerbitzuak sektoreko, probintziako edo autonomia-erkidegoko hitzarmen kolektiboetako batzordeei eskaintzen zaizkie. Ez da gauza bera gertatzen enpresa-hitzarmenei dagokienez, gero eta gehiago direlako eta Lan harremanen Kontseiluaren giza baliabideak eta azpiegiturak mugatuta daudelako. Hala ere, eta erakundearen ahalmenen barruan, LHKren egoitzen erabilera eskaintzen zaie negoziazioaren garapenerako, aholkularitza eta laguntza emateko negoziazio-batzordea eratzean eta negoziazioaren amaieran. Eratze-bilkura eta azken bilkura

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ORGANO NAGUSIA	GUZTIRA	2024AN ERREGISTRATU ETA ARGITARATZEKO AURKEZTUTAKO HITZARMEN ETA AKORDIO KOLEKTIBOAK, SEKTOREKOAK EDO LANBIDE ARTEKOAK
HITZARMEN EDO AKORDIO KOLEKTIBOA	1	4	10	2	17	
SOLDATA-BERRIKUSPENA	7	1	11	3	22	
AURRERAERAGINA ZABALTZEA	0	0	0	0	0	
HITZARMENA ALDATZEA	2	1	2	1	6	
BATZORDE PARITARIOAREN ERAB. / ARBITRAJE-LAUDOA	0	2	1	4	7	
NEGOZIAZIOA HASTE ETA SALAKETAK	4	2	1	0	7	
EZ APLIKATZEKO AKORDIOAK	0	0	0	0	0	
HITZARMENAREN ONDORIOZKO AKORDIOAK	1	2	2	2	7	
LAN-EGUTEGIA	2	1	0	0	3	
GUZTIRA	17	13	27	12	69	

moderatzen dira, eta dagozkion aktak egiten dira; ondoren, ateratzen den hitzarmena Lan Agintaritzari aurkezten zaio, hitzarmen kolektiboen erregistro telematikoaren bidez, bai hitzarmen hori LHKren egoitzetan negoziatu denean, bai, LHKtik kanpoko egoitza batean negoziatu ondoren, alderdiek laguntza tekniko hori behar dutenean erregistratu eta argitaratzeko. Bada, 2024. urtean guztira 38 inskripzio- edo gordailu-eskaera tramitatu ditu LHKk Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan, enpresa-arloko negoziazio kolektiboaren esparruan.

2024. urtean zehar, 2023an jada pandemiaren ondorioz ezarritako edukiera-muga guztiak desagertu ondoren, presentzialtasuna finkatu da, Lan Harremanen Kontseiluaren lurralde-egoitzetan negoziazio-batzordeen eta batzorde paritarioen bilerak egiteko modu ohikoena baita. Hala ere, Kontseiluak batzorde horien eskura jarri du bileren formatu presentziala eta mistoa konbinatzeko aukera, hain zuzen ere, parte-hartze telematikoaren eta presentzialaren bidez.

Lan Harremanen Kontseiluak laguntza teknikoa ematen dio ohiko negoziazio-jardueraren garapenari, eta horri buruz emandako informazio publikoari dagokionez, Lan Harremanen Kontseiluaren

webguneak informazio hori eguneratzeko prozesuarekin jarraitu du (2020an hasi zen). Hala, azken hiru urteetan LHKren laguntza jasotako hitzarmen kolektiboen negoziazio-batzordeen zerrenda sartu da webgune horretan, eta honako hauek zehaztu dira: zein sektoreri dagokion, azken negoziazio-prozesuaren datuak (eraketa-data eta batzordearen azken bilerarena), eta argitalpen ofizialerako estekarekin sinatutako azken hitzarmenaren argitaratze-data; datu horiek guztiak bi hilabeterik behin eguneratu dira. Lan Harremanen Kontseiluan helbideratuta dauden edo laguntza teknikoa jasotzen duten batzorde paritarioei dagokienez, LHKren webgunean jasotako informazioan agertzen da noiz eratu diren eta 2024 urte osoan egin dituzten jarduera-motak.

Ondoren, Lan Harremanen Kontseiluak azken hiru urteetan zerbitzuak eman dizkien negoziazio-batzordeen eta batzorde paritarioen zerrenda aurkezten da. Horietan, asterisko (*) batekin identifikatu dira 2022etik 2024ra bitartean hasitako negoziazio-esparru berriak, eta bi asteriskorekin (**), hainbat arrazoi direla medio aurrera egin ez duten negoziazio-esparru berriak, nahiz eta horien inguruan jardueraren bat egin den aldi horretan, Lan Harremanen Kontseiluaren laguntzarekin.

Lan Harremanen Kontseiluaren egoitzek 2022., 2023. eta 2024. urteetan emandako zerbitzuaren datu bereziki garrantzitsu gisa, azpimarratzekoa da sektore-mailako batzorde paritario espezifikoetan jardun izana. Bada, zerbitzu hori jarraian xehatzen den informazioaren barruan zehazten diren sektoreei eta gaiei buruzkoa da.

LAN HARREMANEN KONTSEILUAK AZKEN HIRU URTEETAN HIRU LURRALDE-EGOITZETAN BERE ZERBITZUAK EMAN DIZKIEN SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN (EDO ASIMILATUEN) NEGOZIAZIO-BATZORDEEN, BATZORDE PARITARIOEN ETA BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOEN ZERRENDIA

ARABA

NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Aisialdiko hezkuntza eta animazio soziokulturala
- Bidaia-errepide bidezko garraioa
- Egoitza pribatuak *
- Elikagaien merkataritza
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Esku hartze soziala
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa-zerbitzuen emakidadunak
- Ezgaitasuna eta aniztasun funtzionala
- Hirugarrenentzako kirol-jarduerak
- Industria siderometalurgikoa
- Metalaren merkataritza
- Okindegien industria
- Ostalaritza
- Salgaien errepide bidezko garraioa, eta garraio-agentziak
- Zementuaren eratorriak
- Zuraren industria

BATZORDE PARITARIOAK:

- Aisialdiko hezkuntza eta animazio soziokulturala
- Bidaia-errepide bidezko garraioa
- Ehungaien merkataritza
- Elikagaien merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Esku hartze soziala
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa-zerbitzuen emakidadunak
- Ezgaitasuna eta aniztasun funtzionala
- Hirugarrenentzako kirol-jarduerak
- Industria siderometalurgikoa
- Ostalaritza
- Salgaien errepide bidezko garraioa, eta garraio-agentziak
- Zementuaren eratorriak
- Zuraren industria

BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Esku hartze soziala: Lanbideen sailkapena aztertze batzordea
- Herri-lanak eta Eraikuntza: Berdintasun-batzordea
- Industria siderometalurgikoa: Berdintasun-batzordea
- Industria siderometalurgiko profesionala: Lanbideen sailkapena aztertze batzordea
- Zuraren industria: Berdintasun-batzordea

BIZKAIA

NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Adinekoentzako zentroak
- Aniztasun funtzionala **
- Autoeskolak
- Arrain-kontserbak eta arrain gazituak
- Arte eszenikoak (EAE) *
- Arte grafikoak
- Artisau-gozogintza eta -pastelgintza
- Bidaiarien errepide bidezko zerbitzu erregularraren eta diskrezionalen garraioa
- Bilboko Portuko zamaketariak
- Bizkaiko tindategiak eta garbitegiak
- Bulego eta despatxuak
- EAEko eraikinak, lokal judizialak eta adingabeen zentroak garbitzea Bizkaiko lurralde historikoan
- EAEko etxeko langile emakumezkoak **
- EAEko gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzia
- EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeak
- EAEko ostalaritza (Esparru-akordioa)
- EAEko sukaldaritza kolektiboa **
- Ehungaien merkataritza
- Ekitaldi eta ikuskizunetako teknikariak eta laguntzaileak (EAE) *
- Elikagaien merkataritza
- Enplegu-zentro bereziak (EAE) *
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza
- Errepide bidezko garraioa eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak
- Eskola-garraioan eta patioan lagun egiteko zerbitzuaren enpresa esleipendunak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak direnak (EAE)
- Esku hartze soziala

- Etxez etxeko banaketa elikagaigintza-sektorean
- Etxez etxeko laguntza
- Euskara (EAE) **
- Eusko Jaurlaritzako kudeaketa zuzeneko eskola jantokietako kolektiboak
- Farmazia-bulegoak
- Fruta eta barazkien biltegi-jabeena eta bananen biltegi-jabeena
- Garbiketa-zerbitzuko enpresa emakidadunak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta EHUren mendekoak diren zentroetan (EAE)
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Industria kimikoa (EAE) **
- Industria siderometalurgikoa
- Larruaren eta oinetakoen merkataritza
- Lokalak eta kirol-zelaiak
- Merkataritza orokorra
- Metalaren merkataritza
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa emakidadunak (EAE)
- Ostalaritza
- Petronor, S.A.-ren enpresa kontratistak, enpleguaren egonkortasunerako ituna
- Zamaketa **
- Zinema-erakustaldia *

BATZORDE PARITARIOAK:

- Arrain-kontserbak eta arrain gazituak
- Butanoaren banaketa
- EAEko gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzia
- EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeak
- Ehungaien merkataritza
- Elikagaien merkataritza

- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza
- Errepide bidezko garraioa eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak
- Esku hartze soziala
- Eskola-garraioan eta patioan lagun egiteko zerbitzuaren enpresa esleipendunak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak direnak (EAE)
- Etxez etxeko laguntza
- Hirugarren adinekoentzako egoitzak
- Industria siderometalurgikoa
- Kolektibitateak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietan (EAE)
- Lokalak eta kirol-zelaiak
- Merkataritza orokorra
- Metalaren merkataritza
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa emakidadunak (EAE)
- Ostalaritza
- Petronorreko kontratak: enplegu-egonkortasunerako ituna

BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Industria siderometalurgikoa: Berdintasun-batzordea

GIPUZKOA

NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Adinekoen egoitzak
- Aparkamendua eta trafikoaren antolamendua
- Arte grafikoak eta industria osagarriak, pape-raren eta kartoiaren manipulatuak eta argitale-txeak
- Beasaingo Udalaren etxez etxeko laguntza zer-bitzua
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa
- Donostiako Udalaren etxez etxeko laguntza zer-bitzua
- Ehungaiei merkataritza
- Elikaduraren industria eta merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Errepideetatik merkagaien garraioa
- Errestaurazio kolektiboa
- Esku hartze soziala
- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak Gipuz-koako Lurralde Historikoan dauzkan zentroen garbiketa (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Garraiolariak
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Gipuzkoako eraikin judizialen eta adingabeen zentroen garbiketa (zerbitzuaren enpresa ema-kidunak)
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko eraikin eta lokalen garbiketa (enpresa emakidadunak)
- Industria siderometalurgikoa
- Irungo Udalaren zentroen garbiketa (zerbitzua-ren enpresa emakidadunak)
- Kale-garbiketa
- Legazpiko Udalaren etxez etxeko laguntza zerbi-tzua

- Liburutegiak eta artxiboak
- Metalaren merkataritza
- Okindegien industriak
- Oñatiko Udalaren etxez etxeko laguntza zerbi-tzua
- Ordiziako Udalaren etxez etxeko laguntza zerbi-tzua
- Ostatuak
- Pasaiaiko Udalaren etxez etxeko laguntza zerbi-tzua
- Pasta, paper eta kartoiaren fabrikazioa
- Pastelen eta gozoen industria eta merkataritza
- Salbamendua eta sorospena naturguneetan, Gipuzkoako administrazio publikoei zerbitzua ematea *
- Titulartasun publikoko kirol-instalazioak
- Urnietako Udalaren etxez etxeko laguntza zerbi-tzua
- Zuraren industria *

BATZORDE PARITARIOAK:

- Arte grafikoak
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa
- Ehungaiei merkataritza
- Elikaduraren industria eta merkataritza
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Errestaurazio kolektiboa
- Esku hartze soziala
- Garraiolariak
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Industria siderometalurgikoa
- Informazioaren eta dokumentazioaren kudeaketa
- Kale-garbiketa
- Metalaren merkataritza

- Okindegien industria
- Ostatuak
- Pasta, paper eta kartoiaren fabrikazioa
- Pastelen eta gozoen industria eta merkataritza
- Titulartasun publikoko kirol-instalazioak

BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Esku hartze soziala:
 - Urruneko laneko eta telelaneko batzordea
 - Hizkuntza-normalkuntzako batzordea (Euska-ra Batzordea)
- Esku hartze soziala:
 - Lanbideen sailkapena aztertze batzordea
 - Ratioak eta lan-karga aztertze batzordea
 - Erretiro-adinetik hurbil dauden langileei (erretiroa, erretiro aurreratua eta 55 urtetik gorakoak) zuzendutako antolamendu-neurriak aztertze batzordea
 - Hizkuntza-formakuntza eta normalkuntzako batzordea
- Industria siderometalurgikoa: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko batzordea
- Kale-garbiketa publikoa eta hiru-hondakin soli-doen bilketa:
 - Bulegoetako langileen kategoriak ezartzeko batzordea
 - Plantetako langileen kategoriak ezartzeko ba-tzordea


APLIKATZEKO HITZARMENARI BURUZKO KONTSULTAK

2009. urteaz geroztik, Lan Harremanen Kontseiluen webgunean, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa bakoitzean, edo hala badagokio, lantoki bakoitzean, aplikatzeko hitzarmen sektorialari buruzko kontsulta-zerbitzua dago eskura. Informazio hori ez da loteslea, hau da, ez da legezkoa, eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa zehazteko laguntza teknikoa ematea du helburu bakartzat. Kontsulta egiteko, nahikoa da formulario erraz bat betetzea, orri korporatiboaren bidez.

Zerbitzua martxan jarri zenetik, goranzko joera ikusten da aurkeztutako eskaeren kopuruan, eta 2021ean maximora iritsi zen (281 kontsulta), pandemiaren agerpenak eragindako jarduera-moteltzearen ondorioz 2020an izandako beherakadaren ondoren. Bada, 2021etik aurrera, beheranzko joera hartu du aurkeztutako eskabideen kopuruak, eta 2024an, guztira, 163 izan dira.

Adierazi behar da, aurkeztutako kontsulten kopurua murriztu bada ere, jasotzen diren eskaerak gero eta konplexuagoak direla, eta, beraz, eskabide bakoitza sakon aztertu behar dela. Bertan, enpresaren jarduera nagusiaz eta aplikatu daitezkeen hitzarmenen eremu funtzionalez gain, «Comisión Nacional de Convenios Colectivos» delakoak emandako irizpenak ere aztertzen dira.

APLIKATZEKO HITZARMENARI BURUZKO KONTSULTAK (2009-2024)



7. PRECO, GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURAK

1991z geroztik, eta Preco Lanbide Arteko II. akordioaren 1990eko sinaduraren ondorioz, lortutako ondorengo akordioek sortutako gatazkak konpontzeko prozedurak etengabe kudeatu dira gaur egun arte, eta horietako azkena Preco Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa da (66. zenbakiko EHAA, 2000ko apirilaren 4koa), 2000ko otsailaren 16an Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkaritzarik handieneko sindikatu eta enpresaburu konfederazio guztiek sinatu zutena.

2024an, Lan Harremanen Kontseiluak, bere hiru lurralde-zerbitzuen bidez, Preco Akordio honen prozedurak izapidetzen jarraitu du, eta, jarraian, haren kudeaketari buruzko datuak azalduko dira, bi parametro bereizi eta osagarritan oinarrituta. Alde batetik, 2024an eskatutako prozedurei buruzko informazioa bildu dugu, eta zifra aurreko zortzi urteetakoarekin konparatzen da, aldi horretan Precoren bitartez bideratutako lan-gatazken bilakaeraren ikuspegia eskaintzeko. Eta, bestetik, urtean amaitutako prozedurei buruzko informazioa jaso dugu, haren kudeaketa eta emaitzak aztertzeko; eta aurreko urteetan amaitutako prozeduren azterketa konparatiboa ere egin da.

AURKEZTUTAKO ESKAERAK

GATAZKA KOLEKTIBOAK

Termino absolutuetan, grafikoan erakusten da 2024an gatazka kolektiboko prozeduren **eskaerak** 599 izan zirela. Zifra hori 500 prozeduratik gorakoa da, 2020an (590), 2021ean (576), 2022an (525) eta 2023an (645) bezalaxe.

Ehunekotan adierazita, 2024an aurkeztutako eskaeren kopuruak %7,1 murriztu zen, 2023an izapidetutako 645 eskaeren aldean (urte horretan 2014-2022 urteetan aurkeztutako eskaeren batez bestekoa, 544 eskaerakoa, gainditu zen). Datu horrek 2014tik memorietan adierazitako normaltasunerako joera berresten du; izan ere, 2000n, Preco azken akordioa sinatuta, adiskidetzearen edo bide judizialaren aurreko bitartekotzaren izapide eskusiboa egin zenetik, urtez urte izapidetutako gatazka kolektiboko eskaerak 400-600 inguruan mantendu dira.

2008an hasitako krisi ekonomikoaren eta 2011. eta 2012. urteetako lan-erreformen garaian nabarmen handitu ziren gatazka kolektiboen eskaerak. 2013an, 1.349 gatazka izan ziren, sektore publikoan 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kentzeagatik eta, batez ere, hitzarmen kolektibo kopuru handi baten aurreraeraginaren amaieragatik egindako erreklamazioengatik. Horren ondorioz, enpresa askok horren guztiaren inguruan beren langileei egindako komunikazioak masiboki aurkaratu ziren.

Orduraz geroztik normaltasunera itzultzen joan gara, hiru ekitalditan 600 gatazka zenbatu zirelako, gutxi gorabehera. 2017tik 2019ra bitartean, askoz maila apalagoak izan ziren, 500 eskaera inguru, baina 2013aren aurreko urteetan baino ge-

hiago. Hala ere, joera hori eten egin zen 2020. eta 2021. urteetan. Ekitaldi horietan, beste krisi batek, kasu honetan osasun- eta ekonomia-krisiak, eskatutako prozeduren kopurua berriz ere handitzea eragin zuen. Igoera hori areagotu egin zen 2023an, eskaeren bolumena 645ekoa izan baitzen; 2024an, aldiz, aurreko urteetako tartean kokatu dira berriro (500-600).

Ohikoa denez, aldakuntza hori, 2023ko datuekin alderatuta, oso desberdina izan da Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan. Horrela, Araban izapidetutako prozeduren kopurua 2023ko bera izan da (181 prozedura). Bizkaian %17ko jaitsiera txikia izan da (258 prozedura); eta, Gipuzkoan, berriz, %4,6 igo dira (160 prozedura).

Bada, eragindako **langileen kopuruari dagokionez**, 2024an 151.532 izan ziren guztira, eta 2023an 142.824; hau da, aurreko urtean baino ia %6 gehiago.

Gipuzkoan koherentea da 2024an aurkeztutako eskaerek eragindako langile-kopuruaren igoera, eskaera-kopurua (+7) eta eragindako langile-kopurua (+3.414) igo baitira. Hala ere, Araban gutxitu egin da eraginpeko langileen kopurua (-4.047), nahiz eta eskaera-kopuru berari eutsi zaion. Eta, azkenik, Bizkaian, eraginpeko langileen kopuruak gora egin du (+9.163), nahiz eta eskaeren kopuruak behera egin (-53).

Gatazken **eremu funtzionalari** dagokionez, 2024an izapidetutako eskaera ia guztiak enpresakoak izan dira, ohi den bezala. Zehazki, 2024an, sektore-eremuko lau eskaera baino ez dira aurkeztu. Gainerako eskaerak (595) enpresa-eremuko gatazka kolektiboei buruzkoak dira: %7,6 sektore publikoko enpresa eta erakundeetakoak, eta gainerakoak (%92,4) sektore pribatuko enpresetan.

AURKEZTUTAKO GATAZKA ESKAERAK (2017-2024)

2017  494

2018  476

2019  464

2020  590

2021  576

2022  525

2023  645

2024  599

Sektore ekonomikoei dagokienez, 2024an, zerbitzuen sektoreak industria-sektorearen aurrean zuen nagusitasunari eutsi zaio. Zehazki, industria-sektoreko gatazkak aurkeztutako prozedura guztien %35,5 izan dira, eta zerbitzu-sektoreari dagozkion eskaerak, berriz, guztizkoaren %61,6 izan dira 2024an.

Analisiaren ikuspegi horretatik, komeni da gogoratzea 2006. urte horretatik aurrera industria-gatazkak pixkanaka gainbehera etorri zirela, eta zerbitzu-sektorean, aldiz, gorakada nabaria izan zela; 2009. Urtean inflexion-puntua gertatu zen, izan ere, industria-prozedurak jada % 50etik beherako ehunekoetan kokatu ziren, %45,4an zehazki, eta zerbitzuen sektorearekin lotutako eskaerak, berriz, %52,9 izan ziren. Bada, joera hori ez da inoiz leheneratu, hurrengo urteetan sendotuz joan da, eta 2015. urtean lortu zuen alde historikorik handiena: zerbitzuen sektoreak gatazken %65,3 bereganatu zuen, eta industria-sektoreak, berriz, %30,9. Arrazoizkoa da pentsatzea joera hori EAEko ekoizpen-sarearen osaeraren beraren bilakaerari lotuta dagoela.

Eskaerak sektorearen esparru ekonomikoaren arabera aurkeztearen bilakaeraren azterketa horrek, 2023an gertatu zen bezala, lotura zuzena du 2024an Lan Agintaritzaren aurrean erregistratutako greba-kopuruaren bidez adierazitako lan-gatazkekin. Hala, egindako greben %68,22 zerbitzuen sektorean metatu ziren; industrian, berriz, greben %30,23 egin ziren, eta eraikuntza-sektoreko greba-egunen eragina oso txikia izan zen (%1,55). Hala ere, 2021ean eta 2022an joera alderantzizkoa izan zen; izan ere, industria-sektoreko greba-egunek gehiago argia hartu zuten (2022an, guztizkoaren %80,7), eta zerbitzuen sektorekoak, berriz, txikiak (%18,7).

2023an ez bezala, joan den urtean esanguratsua izan da PRECOn bidez bideratutako lan-gataz-

PROZEDURA-ESKAEREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (2017-2024)									
		2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
EAE	PROZEDURA-KOPURUA	494	476	464	590	576	525	645	599
	ERAGINDAKO LANGILEAK	134.363	114.190	117.988	230.501	259.609	106.709	142.824	151.532
ARABA	PROZEDURA-KOPURUA	103	109	131	159	146	117	181	181
	ERAGINDAKO LANGILEAK	36.694	55.872	40.620	113.007	44.197	28.983	55.929	51.882
BIZKAIA	PROZEDURA-KOPURUA	245	253	232	334	288	245	311	258
	ERAGINDAKO LANGILEAK	45.786	46.230	62.160	105.668	178.511	50.014	70.835	80.176
GIPUZKOA	PROZEDURA-KOPURUA	146	114	101	97	142	163	153	160
	ERAGINDAKO LANGILEAK	51.883	12.088	15.208	11.826	36.901	27.712	16.060	19.474

tazkak %7,1 jaitsi direla, eta eraginpeko langileak %33,8; eta, aurrez adierazi den bezala, EAEn egindako greben kopurua nabarmen jaitsi da (-%20,62), baita eragindako langileena ere (-%49,5).

Gatazka-motei erreparatuz gero, prozeduren xede nagusia enpresaren erabakiari edo praktikari dagozkien gatazkak dira oraindik ere; horien bidez, enpresak hartutako neurriak (era askotakoak) aurkaratzen dira. Gatazka horiek prozedura guztien %50en gainetik egon dira historikoki; 2024an

%63,60ra iritsi ziren (381 eskaera), hau da, ehuneko 3,3 puntuko igoera, 2023an eskatutakoekin alderatuta. Informazio hori oinarri hartuta, ondoriozta daiteke Precoren prozedura-mota nagusia enpresen zuzendaritzaren antolamendu-ahalmenak baliatzean sortzen diren desadostasunei buruzkoa dela

2024an, antzeko ehunekoetan mantendu dira arauak eta itun edo hitzarmen kolektiboak interpretatzeari edo aplikatzeari buruzko gatazkak

(%26); zehazki, 170 prozedura 2023an, eta 156, al-diz, 2024an). Ohikoa denez, horrelako gatazka gehienak hitzarmen kolektiboak eta enpresa-akordioak interpretatzeari edo betetzeari buruzko desadostasunak izan dira (144), eta oso gutxi izan dira lege-arauak interpretatzeari edo aplikatzeari buruzko eskaerak (12).

2024an behera egiten du jarraitu du Preco prozeduraren mendeko negoziazio-gatazka kolektiboaren kopuruak, eta hori jada 2023ko memorian aipatu zen. Zehazki, gatazka-mota horren 50 eskaera aurkeztu ziren, hau da, eskaera guztien %8,3 (2023an %9 izan zen).

Gainerako gatazkek honela banakatzen dira: enpresa bateko erakunde sindikal jakin bateko afiliazio-portzentajea egiaztatzeko 10 eskaera (PRECoren aplikazio-arauetan onartutako aukera zenbait hitzarmen kolektibotan aurreikusitako es-


kubide sindikalak gauzatzeko ziurtapen-beharrei erantzuteko), eta beste 2 eskaera, bestelako gatazka kolektiboengatik. 2024an ez da eskaerarik izapidetu hitzarmen kolektiboetako batzorde paritarioetan desadostasunak egotearren.

Bestalde, 2024an aurkeztutako **gatazken tipologia** aztertzen hasita, hiru gogoeta nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, urte hasieran, abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez egindako lan-erreforma onartzearekin lotutako eskaera gehiago aurkeztu ziren, zehazki, hitzarmen kolektiboak aplikatzeko lehentasuna arautzeari eta enpresa-kontratazioko praktikak erregulazio berrira egokitzeari dagokienez, 2022an eta 2023an gertatu zen bezala. Bigarrenik, iaz bezala, 2021aren amaieran hasi eta 2024an, modu neurritsuagoan, jarraipena izan zuen inflazio-unearekin lotutako hainbat egoerarekin lotutako prozedurak daudela ere egiaztatu da. Eta, azkenik, aipatu

behar da ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuaren bidez familia-bizitza eta gurasoen eta zaintzaileen bizitza profesionala kontziliatzeko edo bateragarri egiteko neurri berriak onartu ondoren, 2024an baimenekin eta lizentziekin lotutako eskaera ugari aurkeztu direla, eta, zehazki, aipatutako lege-erreforma enpresa- eta sektore-esparruko hitzarmen kolektiboetan baimenen eta lizentzien arauketara egokitze moduari buruzkoak.

2024an, aurreko urteetan ere nabari zen joera bat finkatu da, alderdiek interes-gatazkek konpontzeko prozeduretan (hau da, negoziazio kolektiboaren blokeo-egoerekin lotutakoetan) eta grebetan jarritako konfiantzari dagokionez. Zehazki, 2024an, negoziazio kolektiboko prozesuekin lotutako 69 prozedura izapidetu dira enpresa- edo lantoki-mailan; hau da, %354ko hazkundera izan da 2019tik 2023ra bitarteko aldiko urteko batez bes-

ESKATUTAKO PROZEDUREN BILAKAERA, EHUNEKOTAN, SEKTORE EKONOMIKOEN ARABERA (2010-2024)



tekoarekin alderatuta. Era berean, gutxi gorabehera 36 eskaera aurkeztu dira grebarako eskubideari lotuta, zentzu zabalean, nahiz eta eskaera horietako asko enpresako hitzarmen kolektiboetan itundutako greba-deklarazioaren aurreko izapidea betetzearen ondorio zen.

Adiskidetze-topaketak egiteko modalitateari dagokionez, 2024an kontsolidatu egin da aurrez aurrekoen aldeko hautua (joera hori 2021ean hasi zen). Modalitate horrekin batera, formatu telematikoan soilik egindako adiskidetze-topaketak ere egin dira, nahiz eta gutxiago diren, eta formatu mistokoak ere bai, alegia, aldi berean modu presentzialean eta telematikoki oinarrituta egindako adiskidetze-topaketak; azken hauen kasuan, kopuruak zertxobait gora egin du. Betiere prozeduretan inplikaturako alderdiek egindako eskaeren arabera egiten dira topaketak era batera edo bestera.

BANAKAKO GATAZKAK

Peco borondatezko prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioaren 6. artikulua babesean, Precoren Batzorde Paritarioak hitzarmen kolektiboetan ezarritako bereizgarri jakin batzuk onartu zituen; izan ere, Precora bideratzen zituzten banakako gatazkak.

Hala ere, bide hau gutxitan erabili izan da beti. Izan ere, azken hamabi urteetan banakako gatazken 48 espediente soilik izapidetu dira Lan Harremanen Kontseiluan (horietako 6, 2024an).

GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDURAK KUDEATZEA

PROZEDURAK, AMAITZEN DIREN FASEAREN EDO UNEAREN ARABERA

Precoren prozeduretan bi fase bereizten dira; hasierako fasea deitutakoan, Lan Harremanen Kontseiluko langile teknikoek adiskidetzea helburu duen topaketa bat antolatzen dute, prozeduren kudeaketa eta sustapenaz arduratuz, eta bigarrean, bi alderdiek ados jarrita aukeratutako kanpo profesional baten laguntzarekin prozedura gauzatzen da. Lehen fasean adostasunik lortzen ez denean ekiten zaio bigarren faseari, eta kasu gehienetan, gatazkaren alderdi bakoitzaren gehiengoak nahi duen guztietan, salbuespen puntualak izan ezik, horiek aukera ematen baitute bitartekaritzari ekiteko alderdietako bakar batek eskatuta.

Hala eta guztiz ere, Lan Harremanen Kontseiluko teknikariek jarraitzeko joera sendotzen ari da, akordio bat lortzen ahalegintzeko profesional batekiko prozedura irekitzeko beharrianik gabe.


Horren guztiaren ondorioz, 2024an ere bi alderdiek oso gutxitan onartu dute profesional batekiko prozedura baten eraginpean jartzea. Hala, berretsi egin da azken zortzi urteetan prozedura hasi eta amaitzeko joera, hain zuzen ere, Kontseiluko teknikarien esku-hartze bakarraren bidez, adiskidetzeta-saioaren moderazio-eginkizunetan. Izan ere, adiskidetzeta-saioa, gero eta maizago, paraleloki, zenbait bileratan luzatu eta garatzen da, non gatazkaren aldeek hasierako jarrerak moldatzen baitituzte.

Izan ere, 2012ko lan-erreforma indarrean sartu arte, hasierako fasean (adostasunarekin edo adostasunik gabe) amaitzen zen kasuen batez besteko banaketa edo profesional batekin jarraitzen zuen kasuen banaketa %75,9koa eta %24,1koa zen, hurrenez hurren. 2013. urtean, hitzarmen kolektiboen aurreraeragina amaitu osteko gatazken ondoriozko eskaera kopuru handia zela eta, hasierako fasean bakarrik garatutako prozedurei dagokien ehunekoa %95,6ra igo zen. Bada, 2013. urtean izan zen salbuespena gaindituta, profesionalak parte hartu zuen prozeduren ehunekoa berreskuratu zen hein batean, baina ez, inondik ere, urte horren aurreko balioetan.

Aldi berean, ordutik aurrera aldeek interes handiagoa agertu zuten LHKko teknikarien laguntzarekin lanean jarraitzeko. Testuinguru horretan, 2014tik 2023ra bitartean, profesionalen esku-hartzea hasitako prozeduren %10,9 eta %4,5 arteko tartean kokatu da, eta 2024an %5,6an mantendu da; izan ere, urtean amaitutako 601 espedienteetatik, guztira 34 espedientetan eskatu da profesional baten esku-hartzea.

Datu azpimarragarri gisa, hiru lurralde-egoitzetan izandako intzidentzia oso desberdina azpimarratu behar da. Horrela, Araban 2 prozeduratan bakarrik esku hartu dute profesionalak, eta Gipuzkoan, aldiz, 21 prozeduratan. Bizkaia, bestalde, aurreko urteen oso antzera mantendu da, izan ere, guztira, 11 prozedura amaitu dira profesionalen esku-hartzearekin, 2024an Euskal Autonomia Erkidego osoan garatutako arbitraje bakarra barne.

PROZEDURAK, AMAIERAKO FASEAREN ARABERA (2017-2024)




GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDUREN EMAITZA.
TERMINO OROKORRETAN

Konpondutako gatazken tasak nabarmen egin zuen behera 2023arekin alderatuta, eta %20,6koa izan (124 prozedura); hau da, aurreko urtekoa baino 4,1 puntu gutxiagokoa.

Kopuru hori 2024ko abenikoak urte horretan amaitutako eskabide guztiekin alderatzearen emaitza da. Benetan izapidetutako eskabide guztiekin alderatuz gero (atzera egindakoak eta izapidetzea ez

onartzeagatik nahiz kontrako alderdiak ez agertzeagatik artxibatutakoak kenduta), konpondutakoen ehunekoa, errealitatetik hurbilen dagoena, %23,3koa izango litzateke.

Hiru lurralde-egoitzetan, gatazkak konpontzeari dagokionez, aldeak handiak izan dira, ehunekotan, 2024 urtean. Akordioarekin amaitutako prozeduren ehunekoa hiru lurralde historikoetan jaitsi bada ere, jaitsiera askoz ere nabarmenagoa izan da Bizkaian (%16,2, 2023ko %24,5aren aurrean). Bestalde, Gipuzkoan prozeduren %24,8 eta Araban %23,8 adostasunez amaitu ziren.




HASIERAKO FASEAN AMAITUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDURAK

Printzipioz eskaera guztiak fase honetatik igarotzen dira. Adiskidetze, bitartekaritza edo arbitraje bateranzko bitarteko fasea izan behar zuen hasiera batean, baina azken fasea ere izan daiteke, bi alderdietako batek onartzen ez badu profesionalaren esku-hartzea dakarren prozedura bati hasiera ematea.

Kasu horretan jarduna adostasunarekin amai daiteke, baldin eta Lan Harremanen Kontseiluko teknikariek lortzen badute alderdiak adostasun horretara iristea haiekin egiten dituzten bileretan, edo adostasunik gabe, alderdiek akordiorik lortzen ez badute.

Hurrengo grafikoan profesional batek lagundutako prozedurara pasa gabe amaitu diren 2024. urteko eskaeren datuak adierazten dira. Termino absolututan, fase horretan 567 prozedura amaitu dira guztira, hau da, 2024an amaitutako 601 eskaeren %94,3; bada, horrek 2013an hasitako ildo historikoa (aurrez aipatu dena) berresten du.

2024. urtean, grafikoan adierazten den bezala, hasierako fasean amaitu ziren gatazka kolektiboen artean (567, guztira) alderdien arteko akordioarekin amaitu ziren %18,7 (106). Horrek esan nahi du, 2023. urtearekin alderatuz (%21,8), jaitsi egin direla 3,1 puntu.



Hala ere, eta datu positibo gisa, azpimarratu behar da hasierako fasean amaitu ziren prozeduren ia laurdenak Gipuzkoan (%24,8) eta Araban (%23,8) lurralde-egoitzen arduradunen aurrean sinatutako akordioarekin amaitu zirela, Precoko profesionalen esku-hartzerik gabe.

GATAZKA KOLEKTIBOAK KONPONTZEKO PROZEDURAK, PROFESIONALAREKIN

Aurrez aipatu denez, gutxi dira hasierako fasean konpondu ez eta, aldeek adostuta aukeratutako kanpoko profesionalarekin, adiskidetze, bitartekaritza edo arbitraje moduan jarraitzen duten prozedurak. Zehazki, 2024an soilik 34 espediente izan dira: 23 adiskidetze, 10 bitartekaritza eta arbitraje 1. Ehunekotan, prozedura horiek 2024an amaitutako guztien %5,7 izan ziren.

Prozedura horien emaitzari dagokionez, 2024an adostasunarekin amaitutako adiskidetzeen eta bitartekaritzen ehuneko bateratua fase horietan ebatzitako 33 prozeduren %51,5 (17) izan zen, eta urte horretan Preco Akordioaren esparruan lortutako akordio guztien %13,8 (123). Horiei urtean amaitutako arbitraje-prozeduran emandako laudoa gehitu beharko litzaieke.

ADISKIDETZEAK

Adiskidetzea Precok erabilitako prozeduretako bat da; prozedura horretan, profesional batek alderdiei beren gatazkari irtenbide zuzen bat lortzen laguntzen die abeniko baten bidez.

2024an, guztira, 23 adiskidetze-prozedura amaitu dira alderdien artean adostuta izendatutako profesionalarekin (amaitutako prozeduren %3,8).

Ondorengo grafikoan, adiskidetze horiek azken urteetan amaitzeko moduak aurkezten dira. Profesional baten bidezko adiskidetzearen eraginkortasuna oso handia izan da urte honetan ere, serie historiko osoan bezala; izan ere, 14 adostasun lortu dira, hots, 2024an amaitutako adiskidetze guztien %60,9. Hala eta guztiz ere, ehuneko horretan behera egin da aurreko urtearen aldean, 2023an prozedura mota horren bidez konpondu baitziren gaien %80.

Adiskidetzea da, era berean, afiliazioa egiaztatzeko prozeduraren forma. Prozedura horretan, alderdiek aldeztu aurretik onartzen dute izendatzen duten profesionalak emango duen ziurtagiria, eta, beraz, adostasunarekin amaitzen da, betiere bi alderdiek aho batez onartzen baldin badute prozedura hori. 2024an, sindikatu-afiliazioa egiaztatzeko prozeduren garrantzi erlatiboa nabarmen jaitsi da profesionalarekin amaitutako prozeduren guztizkoaren barruan, 2023arekin alderatuta (zehazki, 2023an 30 prozeduretatik 28 izatetik, 2024an 23 prozeduretatik 7 izatera igaro da). Datu horrek adierazten du adiskidetze-prozedura gehiago erabiltzen dela gatazka juridikoetarako eta negoziatio-gatazketarako, eta horrek nolabait azaltzen du zergatik lortu diren 2024an adostasun gutxiago 2023an baino.

ADISKIDETZEAK
AMAITZEKO MODUA
(2017-2024)

Bestalde, adiskidetze-prozeduretatik afiliazioa egiaztatzeari buruzkoak kenduz gero, aurrez aipoatu den %60,9ko eraginkortasuna %46,7koa izatera igaroko litzateke, gatazka juridikoei edo negocia-

zio-gatazkei buruzko adiskidetze-prozedura batean akordio bat lortzea zailagoa delako, sindikatu-afiliatioaren maila egiaztatzeari buruzko beste prozedura batzuekin alderatuta.

BITARTEKARITZAK

Bitartekaritza Precoren beste prozedura bat da; horretan, profesionalak alderdien arteko akordio zuzenik lortu ez duenean, bi alderdiek onar edo bazter dezaketen proposamen idatzi bat formula-tuz amaitzen du bere jarduna.

Bada, 2024. urtean, 10 bitartekaritza-prozedura amaitu ziren (profesionalek esku-hartu zuten prozedura guztien %29,4): 3 adostasun, 4 kasutan adostasunik ez, eta 3 atzera egite. Termino absolu-tuetan, mota horretako prozeduren kopuruak gora egin duela egiaztatu da, 2023an 3 eta 2022an 4 iza-pidetu baitziren.

**BITARTEKARITZAK
AMAITZEKO MODUA
(2017-2024)**

2024  10

2023  3

2022  4

2021  9

2020  7

2019  6

2018  9

2017  19

 Adostasunez

 Adostasunik gabe

 Atzera egiteak eta
beste batzuk

ARBITRAJEAK


Arbitrajean, azkenik, aurrez profesionalak eman-dako laudoa onartu behar dute alderdiek. Beraz, horrelakoetan ezinezkoa da adostasunik eza gertatzea.

2024an, arbitraje 1 garatu da, eta laudo 1 eman da. Horrelako 3 espediente garatu ziren 2023an.

2024KO KUDEAKETAREN LABURPENA

2024an 601 prozedura amaitu dira (horietako batzuk aurreko urteetan hasitakoak ziren), hau da, %8,9 gutxiago 2023koen aldean, orduan 660 izan baitziren. Guztira, 124 eskaeratan lortu zen gatazkari konponbidea ematea, hau da, amaitutako prozedura guztien %20,6an. Horrek esan nahi du 3,2 puntuko jaitciera egon dela aurreko urtearekin alderatuta, orduan %24,8koa izan baitzen. Hala ere, aurrez esan dugunez, adostasunarekin amaitutako prozedurak %23,3 izango lirateke, baldin eta beste aldea ez agertzeagatik, atzera egiteagatik edo izapidetzeko ez onartzeagatik izapidetu ezin izan ziren eskaerak deskontatzen badira.

Bestalde, profesional baten esku-hartzearekin aurrera eramandako 34 prozeduretan (arbitrajea barne) izandako desadostasunen ehunekoa %52,9koa da, eta horrek bide horien eraginkortasuna berresten du, bi alderdiek hori egitea onartzen dutenean. Hala ere, profesional baten esku-hartzearekin aurrera eramandako prozeduretan (arbitrajeak barne) izandako desadostasunen ehunekoa %20,1 jaitsi da 2023ko datuekin alderatuta (%73ko adostasun-ehunekoa orduan), eta beherrakada hori, neurri batean, sindikatu-afiliazioa



egiaztatzen prozedurek kontziliazio-prozedura guztien barruan duten pisu konparatibo txikiagoaren ondorio da.

Banakako gatazkei dagokienez, haien bolumena oso txikia da, izan ere, 2024an halako 6 espediente baino ez daude; horietatik 5 Arabako egoitzak izapidetu zituen eta adostasunik gabe amaitu ziren, eta 1 ez zuen izapidetzeko onartu Gipuzkoako egoitzak.

Berrikuntza moduan, adiskidetze-saioak modu telematikoa egiteari ekin zitzaion 2020an, arrakas-

taz ekin ere, baina 2024an murriztu egin da, aurrez ez baita murrizketarik egon aurrez aurreko bilerak egiteko. 2024. urtearen amaieran, topaketa telematikoak, aurrez aurrekoak edota mistoak (presentzialak eta birtualak) egin dira, baina gehien-gehienak azken bi modalitate horietan egin dira; telematikoak gutxi batzuk baino ez dira. Bada, arreta-formula misto horri esker (telematiko hutsarekin batera), pertsonen arteko joan-etorriek eta harremanek eragindako arriskuak murriztu dira, eta beste egoera batean bidaietarako eta joan-etorrietarako zailtasun handia izango zuten pertsonen parte hartu dezaten erraztu da.

8. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA-ORPRICCE

Abenduaren 30eko 471/2013 Dekretuaren bidez sortu zen gure Autonomia Erkidegoan hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeari buruzko desadostasunak ebazteko eskumena –Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan ezarritakoa– duen erakunde publikoa. Estatuan, eskumen hori «Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos» delakoari dagokio.

ORPRICCEk hiruko izaera du, eta honako hauek osatzen dute: Autonomia Erkidegoko Administrazioako bost ordezkari, Confedaskako (enpresaburu konfederazio adierazgarriena) bost ordezkari eta sindikatu konfederazio adierazgarrienetarikoa beste bost ordezkari (nahiz eta bost postu horietako bat hutsik geratu den, LAB erakundeak titular bat proposatzeko eskubideari uko egin diolako).

Organo hau eratu zuen dekretuak Lan Harremanen Kontseiluan ezarri zion egoitza, haren eskumenak gauzatzeko behar dituen baliabideak Kontseiluak ematea xedatuz. Hori dela eta ematen dugu haren sorreraren eta jardueraren berri, nahiz eta lege arautzaileak ematen dizkion eskumenen artean ez egon.

Organo honen jarduna haren kideek 2014ko martxoaren 13an egindako eraketa bilkuran kargua hartu zutenean hasi zen. 2014an hitzarmen kolektiboa ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ebazteko bi eskaera aurkeztu ziren. Horietako bat atzera bota zen aurkeztu eta zenbait egunetara, eta besteak arbitraje prozedura eragin zuen.

2015. urtean bi eskaera aurkeztu zituzten, eta 2016an bat gehiago; kasu guztietan, arbitraje laudoarekin bukatu ziren prozedurak. Bada, 2017tik erakunde honek ez du eskaerarik izapidetu, 2019an aurkeztu zen bat salbu; eta hura enpresak atzera eginda amaitu zen, bi aldeak ados jarri baitziren amaitu aurretik.

9. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK

Lan Harremanen Kontseiluak, bere lege erregulatzailan ezarritakoari jarraiki, irizpenak, ebazpenak, txostenak edo azterlanak lantzen ditu, nola eskumeneko instantzien eskaerei jarraikiz hala bere ekimenez.

INFORMAZIO SOZIOLABORALEKO PLANA

Errealitate soziorabotala aztertzeo garatzen dugun lanaren funtsezko ardatza negoziazio kolektiboa da. Aitzitik, negoziazio kolektiboari buruzko informazio hori, errealitate sozioekonomikoaren barruan kokatu eta horren aldagairik garrantzitsuenetako batzuekin lotzean aberastu egiten dela uste dugu.

Helburu horrekin, aldizkakotasun desberdineko txostenak egiten ditugu, eta guztiak ere gure webgunean kontsulta daitezke, honako helbide honetan: **TXOSTENAK ETA AZTERLANAK**.

BI HILEAN BEHINGO INFORMAZIO SOZIOLABORALA

Hala, EAEko errealitate soziorabotalaren azterketaren lehen maila bi hilean bebingo «*Informazio soziorabotala*» argitalpenean jasotzen da, eta argitalpen horretan hitzarmen kolektiboen jarraipena egiten da eta urtean zehar metatutako emaitza nagusien informazioa ematen da, betiere harira datozen beste informazio soziorabotal batzuen tesuinguruan eman ere.

Txosten horretan hasierako laburpen koadro bat biltzen da, baita honako alderdi hauei buruzko datuak jasotzen dituzten koadro eta grafiko jakin batzuk ere: egoera makroekonomikoa, industria jarduera, prezioak, lan-merkatua, negoziazio kolektiboa, lan-gatazkak, enplegua erregulatzeko espedienteak, eta lan-istripuak. 2024an sei txosten egin dira guztira.

URTEKO TXOSTEN SOZIOLABORALA

Jarraipen soziolaboralerako plan hau urteko txosten soziolaboralak burutzen du. Bertan ekitaldi osoaren analisi osatuagoa egiten da, gogoeta kualitatibo xehatuagoa eskainiz. 2024. urtean, bada, 2023. urteari dagokion txostena argitaratu zuen LHK-k, honako izenburu honekin: *«EAEko Egoera Ekonomikoa eta Lan Harremanak 2023an»*.

Errealitate soziolaborala aztertu eta jarraitzeko zeregin hori guztia egiteko, LHK-k askotariko estatistika informazio garrantzitsuak aztertzen ditu, eta aldagai eta adierazleen hautaketa zehatza egiten du. Gainera, bere datu base propio bat landu eta prozesatzen du, bertan biltzen duelarik EAEko negoziazio kolektiboari buruz dagoen informazio guztia, edo beste eremu batzuetan garatu arren, gure Autonomia Erkidegoan eragina duena.

2023ko txosten soziolaborala uztailean argitaratu zenez, 2024ko otsailean *«Euskadiko egoera soziolaborala, emaitzen aurrerapena»* izeneko aurrerapena argitaratu zen, urtea amaitutakoan egoera soziolaboralaren alderdi nagusiak ezagutarazteko.

NEGOIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA EAEN

Urte birik behin, Kontseiluak negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa eguneratzen du, hau da, EAEn ezartzen diren hitzarmen kolektiboen bilduma egiten du, eta haien eraginpeko langileak zein diren zehazten du.

Azken azterlana 2023an egin zen, hitzarmen kolektiboek eragindako langileak sexuaren arabera banakatuta. Azterlana egiteko, aurreko kasuetan bezala, Gizarte Segurantzak 2023ko martxoaren 31n emandako informazioa hartu zen oinarritzat.

Lortutako emaitzekin, 2024an negoziazio kolektiboaren egitura eguneratu zen, eta txostenak egiteko oinarritzat hartzen den Kontseiluaren datu-basea aldatu zen.

NEGOIAZIO KOLEKTIBOARI BURUZKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA ESTATISTIKORAKO DATU-BASE BERRIA

Negoiazio kolektiboaren bilakaeraren azterketa estatistikoa egiteko oinarri gisa erabiltzen den aplikazioa eguneratu beharra dagoela egiaztatu da, euskarri teknika izateari utziko liokeen sistema eragile batekin garatuta egoteagatik, eta 2024an aplikazio berri bat garatu da, hain zuzen ere 2025eko lehen hilabeteetan aurrekoa ordeztuko duena.

HAINBAT KONTSULTA NEGOIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURARI BURUZ

2024. urtean zehar ere gizarte-eragileen eta negoziazio-batzordeen eskaera ugari jaso ziren azterlanen zerbitzuan, informazio eske, Negoiazio Kolektiboaren Egiturari buruzko gure Azterlanaren arabera hainbat hitzarmenen eremu funtzionalean sartuta dauden enpresen eta langileen kopuruari buruz. Mota horretako 35 kontsulta egin eta erantzun ziren.

10. AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Lan Harremanen Kontseiluak autonomia ekonomiko finantzarioa du Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen barruan, eta, funtsean, aurrekontu horien kargura emandako dirulaguntzen bitartez finantzatzen du bere jarduera.

Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2023ko abenduaren 21eko ezohiko saioan, LHKren 2024ko ekitaldirako aurrekontua onartu zuen. Hasierako aurrekontu hori aldatu egin zen 2024ko martxoaren 25eko ohiko Osoko Bilkuran:

AURREKONTUA 2024

1. DIRU-SARRERA ARRUNTAK	2.803.759,00 €
1.1. Transferentzia arruntak	2.803.759,00 €
1.2. Beste diru-sarrera batzuk	0,00 €
2. GASTU ARRUNTAK	2.793.185,78 €
2.1. Langile-gastuak	1.356.752,89 €
2.2. Funtzionamendu-gastuak	1.436.432,89 €
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	10.573,22 €
4. KAPITALAREN SARRERAK	27.290,00 €
4.1. Kapital-transferentziak	27.290,00 €
5. KAPITAL-GASTUAK	218.221,22 €
5.1. Inbertsio errealak	218.221,22 €
6. AHALMENA (+) BEHARRA (-) FINANTZAKETARAKO (3+4-5)	(180.358,00 €)
7. FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	(3.000,00 €)
7.1. Aktiboen aldakuntza. Sarrerak (langileen maileguen itzulketa)	3.000,00 €
7.2. Aktiboen aldakuntza. Gastuak (langileei maileguak ematea)	6.000,00 €
8. SUPERABITA - (AURREKONTU-DEFIZITA) (6+7)	(183.358,00 €)

2024KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

1. DIRU-SARRERA ARRUNTAK	2.827.247,00 €
1.1. Transferentzia arruntak 2.803.759,00 €	
1.2. Beste diru-sarrera batzuk 23.488,00 €	
2. GASTU ARRUNTAK	2.714.552,00 €
2.1. Langile-gastuak 1.371.480,00 €	
2.2. Funtzionamendu-gastuak 1.343.072,00 €	
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	112.695,00 €
4. KAPITALAREN SARRERAK	27.290,00 €
4.1. Kapital-transferentziak 27.290,00 €	
5. KAPITAL-GASTUAK	50.250,00 €
5.1. Inbertsio errealak 50.249,94 €	
6. AHALMENA (+) BEHARRA (-) FINANTZAKETARAKO (3+4-5)	89.735,00 €
7. FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	(500,00) €
7.1. Aktiboen aldakuntza. Sarrerak (langileen maileguen itzulketa) 5.500,00 €	
7.2. Aktiboen aldakuntza. Gastuak (langileei maileguak ematea) 6.000,00 €	
8. SUPERABITA - (AURREKONTU-DEFIZITA) (6+7)	89.235,00 €

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES

